

## Euskara Batzordeak martxan

Ikastolaren helburu nagusienetako bat da Euskararen presentzia areagotzea, ez soilik ikastolan, baita bertatik kanpo ere, eguneroko esparru guztietan. Horretarako, ezinbestekoa da guztion ahaleginak bateratzea, eta etengabeko elkarlanean aritzea. Helburu hori ardatz, datorren astean elkartuko da Gurasoen Euskara Batzordea, eta ikasleen Euskara Batzordea ere indartzeko pausuak eman dira.



## Teknologia Berrien txostena

Datorren astean emango diegu amaiera azken asteotan Orain Prebentzioaren eskutik Teknologia Berrien arriskuen inguruan egindako formakuntza-saioei. Teknologia Berriek gazteen bizitzan duten presentziak eta eraginak gai honen inguruko etengabeko lanketa egitera bultzatzen gaituzte, eta ezinbestekoa da familiek ere lanketa horretan parte hartzea. Hori dela eta, etxeetan baliabideak eskura izan ditzazuen, **gomendio-bilduma bat** **duzue hemen**.




## Inauteriak

Aurtengo kultura-jaialdiei amaiera eman diegu gaur Inauterien festarekin. Aurreko astean aurreratu genizuen moduan, ezin izan dugu festa hau urteroko moduan ospatu, baina bakoitzak aukeratutako moztorroekin kolorez eta alaitasunez bete dugu ikastola.



**Kaldereroak.** LH1eko ikasleak DomusVi-Sakramentora joan izan gara beste urte batzuetan dantzatzera eta gure doinu alaiak eskaintzera. Aurtengo egoeran ezin izan garenez bertaratu, ilusio handiz bideotxo hau bidali diegu.



**Kaldereroak Hurra.** **Hemen** dituzue lehengo astean Manteon egindako ospakizunaren hainbat argazki eta hiru bideo polit: [LH1-3](#), [LH3-4](#), [LH5-6](#).

## Orientazio akademikoa

Batxilergoko Orientazio Akademikoko ekintzen barruan, hainbat Unibertsitateen bisita bisita jaso dute 2. batxilergoko ikasleek: EHU, Deustu, Mondragon Unibertsitatea, DIGIPEN eta UNAV. Saio horietan, unibertsitate-graduuen eskaintzari buruzko informazioa jasotzeko aukera izan dute ikasleek.



## OHARRAK / AGENDA:

- **HH4-5:** Ingeleseko antolaketa berria. [HH4 zirkularra](#). [HH5 zirkularra](#).
- **HH5:** Basoeskola. Goizpasa. HH5C-D (Amaia-Ixiar) otsailak 16. HH5A-B (Ainere-Miren) otsailak 19.
- **LH6:** Teknologia Berrien inguruko saioak. Otsailak 16.
- **DBH2:** Heziketa afektibo-sexuala. Otsailak 16 (A taldea), otsailak 17 (B taldea) eta otsailak 18 (C taldea).
- **Zurriola Musika eta Dantza Eskola:** Batzar Nagusia. Otsailak 17. 17:30. [Zirkularra](#).
- **Zurriola Musika eta Dantza Eskola:** Batzordean parte hartzeko idatzi zurriolame@zurriolaikastola.eus helbidera.
- **Euskal Herriko Ikastolak - Lan eskaintza:** [Deialdia](#).

